



IRIZPEN ZK.: D18-010

UDAL ZERBITZU BATERAKO HITZORDUAK EMATEKO AGIRIETAN LANGILEEN IDENTIFIKAZIO DATUAK TRATATZEA EA ZILEGI DEN ARGITZEKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: [...] Udaleko administrari eta administrari laguntzaileek kolektibo batek irizpen bat eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, goiburuan adierazitako gaiari buruz. Eskaera idazkiak honakoa adierazten du:

“Idazki honetan agertzen diren pertsonak Vitoria-Gasteizko Udaleko karrerako edo bitarteko funtzionarioak dira eta administrari edo administrari laguntzaileen kategorietakoa dira.

Pertsona horiek [...] Udaleko Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saileko Komunitate Jardueraren Zerbitzuan egiten dute lan, eta haien lanpostuak Vitoria-Gasteizen sakabanatuta dauden oinarrizko gizarte-zerbitzuetako administrazio unitateetan daude.

Pertsona horiek bakoitzak bere lanpostuan egiten duen zereginetako bat da gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL) eskatzen dituzten herritarren eskabideak jaso eta egitea.

Eskabidea jaso eta egiteko hitzordua ematen zaio eskatzaile bakoitzari dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuetako administrazio unitatean, eta egun eta ordu zehatz bat ematen zaizkio alde aurretik, zein egun dagoen libre ikusi ostean.

Hitzordua emateko dokumentu bat erabiltzen da, eta eguna, ordua eta hitzordua non izango den adierazteaz gain, eskabidea jaso eta egingo duen administrariaren edo administrari laguntzailearen izena eta abizenak ere agertzen dira (Honi erantsita doa hitzordua emateko agiri eredua).

Dokumentuan pertsona baten izena eta abizena agertzeak ez du bermatzen pertsona horrek hartuko duenik herritarra hitzorduko egunean (administrazio unitateko beste pertsona bat izan daiteke, ordezkari bat, titularra oporretan dagoelako, baimena duelako, gaixorik dagoelako eta abar).

Egiaztatu da hitzordua eman zaizkiola jendeari aldi baterako ezintasunagatik hainbat hilabetez bajaran zeuden administrazio unitate batzuetako langileen izenean.

Segurtasun eza sortzen du guregan alde aurretik egiten dugun identifikazioak, hori egitean gu bihurtzen garela udalaren ordezkari (herritarren aurrean) guk kudeatzen ditugun laguntza ebazten direnean, eta bereziki laguntzak ukatzen edo eteten direnean.

Aldez aurretik egin genuen kontsulta 2017ko azaroaren 7an Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, baina [...] Udalak ez zuen aintzat hartu Bulegoak esandakoa, atxikita bidali dugun 2. agirian ikusten denez.

ESKATZEN DUGU:



Idazki hau aurkeztu dela jasotzea eta irizpen bat egitea kontsultan azaldu den auziari, honakoak argituz:

1.- Ea [...] Udaleko Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren portaera kasu honetan ondo ezkontzen den Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legearekin eta ea babesten duen administrazio unitateetako kideen pribatutasuna.

2.- Ea legeren batek agintzen duen administrariak nahitaez identifikatu behar direla aldez aurretik herritarren aurrean, izena eta abizenak idatziz jarrita hitzorduaren agirian.

3.- Ea zein den, herritarren batek eskatzen badu, identifikatzeko modurik egokiena aurrerantzean, hau da, ea funtzionarioaren izena eta/edo abizenak izan behar diren ala nahikoa litzatekeen Langileen Erregistroko identifikazio zenbakia edo antzeko beste daturen bat”.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako egingizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.

Beraz, araudia kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsultako gaia aztertzeko, lehendabizi kontuan hartu behar dugu honako arauak dioena datu pertsonalei buruz: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena - Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra. Hona 4.1 artikuluan ematen duen definizioa:

“Datu pertsonalak»: pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri («interesdun») bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago”.

Artikulu horrek dioenez, udal bulegoetan herritarra atenditzen dituztenen identifikazio datuak datu pertsonalak dira.

Erregelamendu Orokorren 4.2 artikulua xedatzen duenez datu pertsonalen tratamendutzat jotzen da *“datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilia zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea,*



kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea”.

Oinarrizko eskubidea babesteko, datu pertsonalen tratamenduren bat egon beharko du nahitaez, bestela, ezin da egon lege urraketarik. Datu tratamenduaren kontzeptuari helduz, esan dezakegu langileen identifikazio datuak komunikatzea hitzorduak emateko, datu pertsonalen tratamendua dela, eta, beraz, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak xedatzen dituen arauen menpe dagoela.

II

Datu tratamendu bat dagoela baieztatu eta gero, aztertu behar da ea zein den tratamendua legitimatzen duen lege oinarria.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53.1.b) artikulua bermatzen du interesdunek eskubidea dutela identifikatzeko prozedura izapidetzeko ardura duten herri administrazioetako agintari eta langileak.

Eta 71. artikulua ezartzen horretarako prozedura, bizkortasun-printzipioa zainduz, ofizioz bultzatuko dela izapide guztietan, eta bitarteko elektronikoaren bidez, gardentasun- eta publikotasun-printzipioak gordez.

Bestalde, Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak xedatzen du langile publikoaren betebeharrak dela gardentasun printzipioen arabera jokatzeko.

Gardentasuna izango da, beraz, administrazio publikoaren jardueraren printzipio gidarietako bat, eta langile publikoaren betebeharra ere bai, eta datu horiek tratatzea zilegi egiten duen oinarri juridikoa interes publikoa da.

Edozelan ere, printzipio orokorra da, eta muga batzuk ditu. Esate baterako, Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 15. artikulua datu babesaren muga non dagoen finkatzen du, zenbait ponderazio arau ezarriz. Hona 2. zenbakiak dioena: *“Oro har, organoaren antolamendu, funtzionamendu edo jarduera publikoari buruzko identifikazio-datu hutsak jasotzen dituen informazioa eskuratzeko baimena emango da, salbu eta ezin bada ezagutarazi, informazioa ezagutzera ematearen interes publikoari datu pertsonalak babestea edo Konstituzioak babestutako beste eskubideren bat gailentzen zaiolako”.*

Gardentasunari buruzko legearen artikulua horrek zenbait ponderazio irizpide ezartzen ditu, oso baliagarriak direnak erabakitzeko zein ondasun juridiko gailentzen den talkarik gertatzen bada gardentasunaren eta pribatutasunerako eskubidearen artean. Legearen 15.2 artikulua dioenez, oro har, informazioa eskuratzeko baimena emango da, organoaren antolamendu, funtzionamendu edo jarduera publikoari buruzko identifikazio-datu hutsak jasotzen dituen.

Baina, artikulua horrek berak dio zuhurtziaz jokatu behar dela, datu pertsonalak babestea edo Konstituzioak babestutako beste eskubideren bat gailentzen zaionean informazioa ezagutzera emateko interes publikoari.

Artikulu horretako 3 d) atalak aipatzen ditu zein diren informazioa eskuratzeko interes orokorrak baino babes handiagoa behar duten eskubide batzuk, esate baterako,



intimitatea aipatzen duenean, eta segurtasuna edo informazioa adingabeei buruzkoa denean.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrek ere 18. artikuluan xedatzen du, interesdunaren egoera partikularra dela eta, eskubidea izango duela, edozein unetan, berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko, tratamendu hori oinarritzen bada 6.1 artikuluko e) letran (interes publikoa) edo f) letran (interes legitimoa) xedatutakoan. Tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak tratatzeari utziko dio, noiz eta ez duen egiaztatzen interesdunaren interes, eskubide eta askatasunen gainetik arrazoi legitimo larriak daudela tratamenduari eusteko.

Erregelamendu Orokorrek murriztu egiten du tratamenduei aurka egiteko eskubidea interes publikoak (hau da gure kasua) edo interes legitimoak legitimatutako tratamenduak direnean. Kontsulta idazkiak dioena ikusita, ondoriozta daiteke kontsulta-egileek diotela segurtasunagatik ez dutela nahi haien izen-abizenik agertzea hitzordua emateko agirietan, uste dutelako, kaltetu egin daitekeela, batez ere laguntzak ukatzen direnean edo eteten direnean. Beraz, kontsulta-egileek, haien egoera partikularra dela-eta, egiten diote aurka tratamendu legitimo bati.

Beste alde batetik, kontsulta idazkiak dio hitzordua emateko agirian pertsona baten izena eta abizenak agertzen badira ere, horrek ez duela esan nahi pertsona horrek atendituko duenik herritarra, administrazio unitate bereko beste pertsona batek edo titularraren ordezkioak ere atenditu dezaketelako.

Labur esanda, alde batetik dago udalaren asmoa herritarrekiko harremanetan gardentasunez jokatzeko, eta beste aldetik dago ukitutako langileen eskubidea datu tratamendu bati aurka egiteko, segurtasun arrazoiak direla-eta. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ezin du aztertu langileek alegatu duten egoera, hitzordua emateko agirian haien izen-abizenak jartzearen aurka egiteko baliaitu dutena. Udalak ezagutzen du ondoen kontsulta-egileek lan egiten duten administrazio zerbitzuetako eguneroko zereginen inguruko gorabehera; eta, beraz, udalak aztertu beharko du ea zilegi den langileen segurtasuna bermatzea hitzorduko agiriko informazioa murriztuta, hau da, izena bakarrik jarrita, zenbaki bat edo herritarra atendituko duen zerbitzuaren izena jarrita. Agentziak ez du egoera ezagutzen eta ezin du baloratu zenbateko eragina duen langileen segurtasunean, baina bai esan dezake segurtasuna ondasun juridiko bat dela, eta, lehen ere esan dugunez, interes publikoak amore eman dezake datuen tratamenduak egitean.

Beste alde batetik, ez dirudi zentzukoa denik hitzordua emateko dokumentuetan informazio pertsonala jartzea, litekeena denean hitzorduaren egunean informazio hori zuzena ez izatea, dena delako pertsona falta delako, gaixorik dagoelako edo beste arrazoi batengatik; eta, gainera, interesdunak aukera du baliatzeko bere intereseko prozedura izapidetzen ari den pertsonala identifikatzeko eskubidea, hala xedatzen duelako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53. artikulua.

Esandako guztia kontuan hartuta, ateratzen den ondorioa da Udalak aztertu egin beharko duela ea hitzordua emateko agirietan informazioa mugatzerik dagoen, kontuan hartuta langileen egoera, ikusita haiek adierazi dutela datuen tratamendu legitimoari aurka egiteko eskubidea baliaitu dutela segurtasunagatik.